


**Erdi Mailako  
Lanbide  
Heziketa**

**Elektrizitatea  
eta elektronika**

# Telekomunikazioetako instalazioen teknikaria



**Nafarroako  
Gobernua**  **Gobierno  
de Navarra**



Fondo Social Europeo  
Europako Gizarte Funtza  
El FSE invierte en tu futuro  
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du

**UNIÓN EUROPEA  
EUROPAR BATASUNA**

# Telekomunikazioetako instalazioen teknikaria

## Zure etorkizuneko bizibidea

Ziklo hezigarri hau amaitzen duzunean kalifikatuta egongo zara hurrengo jarduera profesionalak garatzeko:

### Eraikinetako telekomunikazio azpiegituren muntaketa eta mantentze-lanak

- Irrati eta telebista seinaleak hartzeko instalazioak muntatu eta mantentzea eraikinetan edo eraikuntza multzoetan (antena eta kable bidezkoak).
- Publikoarentzako telefonia zerbitzua erabiltzeko instalazioak eta sarrera kontrolatzeko instalazioak (barneko telefonia eta bideo-atezainak) muntatu eta mantentzea.

### Megafonia, lokalen sonorizazio eta telebista-zirkuitu itxiko instalazioen muntaketa eta mantentze-lanak

- Megafoniako eta lokalen sonorizazioko instalazioak muntatzea eta mantentzea.
- Telebista-zirkuitu itxiko instalazioak muntatzea eta mantentzea.

### Telefonia sistemen eta datuen tokiko sareen azpiegituren muntaketa eta mantentze-lanak

- Ahalmen txikiko telefonoguneak dituzten telefonia sistemen muntatzea eta mantentzea.
- Datuen tokiko sareen azpiegiturak muntatzea eta mantentzea.

### KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Profesional honek telekomunikazioko azpiegiturak, telebista-zirkuitu itxiko eta segurtasun elektronikoko instalazioak, telefonoguneak eta ahots nahiz datu sareen azpiegiturak, sonorizazio eta megafoniako instalazioak, irrati-komunikazioetako instalazioak eta instalazio domotikoak eta ekipamendu informatikoak muntatu eta mantentzen dituzten mikroenpresetan eta enpresa txiki eta ertainetan egiten du lan, bere kontura edo besteren kontura. Enpresa horietatik gehienak pribatuak dira.

Hauek dira jarduera eta lanpostu aipagarrienak:

- Etxebizitza-eraikinetako telekomunikazioen instalatzailea.
- Antenen instalatzailea.
- Segurtasun sistemen instalatzailea.
- Tokiko sareetako eta telematikako teknikaria.
- Tokiko sareen instalazio eta mantentze-lanetako teknikaria.
- Telefonia instalatzailea.
- Telefono eta telematika ekipamenduen instalatzaile-muntatzailea.
- Soinu instalazioetako teknikaria.
- Megafonia instalatzailea.
- Sistema domotikoen instalatzaile-mantentzailea.
- Ekipamendu informatikoen instalazio eta mantentze-laneko teknikaria.

### ZIKLOAREN MODULUAK

- Elektronika aplikatua.
- Ekipamendu mikroinformatikoak.
- Datu-sareen eta telefonia-sistemen azpiegiturak.
- Oinarrizko instalazio elektrikoak.
- Megafonia eta sonorizazio instalazioak.
- Enpresa eta ekimena.
- Etxebizitza eta eraikinetako telekomunikazio azpiegitura komunak.
- Instalazio domotikoak.
- Telebista-zirkuitu itxia eta segurtasun elektronikoa.
- Irrati-komunikazioetako instalazioak.
- Produktu elektronikoen aholkularitza eta salmenta.
- Lanerako prestakuntza eta orientazioa.
- Lantokietako prestakuntza.

+ INFO T 848 42 66 16 | 848 42 64 00

[www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/formacion-profesional](http://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/formacion-profesional)